

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Ostirala, 2010eko abenduaren 31. VIII. urtea. 2.150. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Napoleonen alderdi desberdinak ezagutzeko aukera Aranburu jauregian

Bisita antzeztua ere antolatu dute urtarrilaren 8rako; 17:30an Aranburun bertan hasiko da ibilbidea eta San Frantziskon bukatu **04**



Liburu, bideo eta lan desberdinak bildu dituzte Aranburun. I. TERRADILLOS



E. EZEIZA

→ **Garai bateko salerosketa.** Leitzako Gazte Asanbladak antolatuta truke azoka egin zuten atzo udaletxe azpian. Iaz egin zuten lehen aldiz Atekabeltzen eta izandako arrakasta dela eta aurten erreplikatzeari erabaki zuten. Dirurik erabili gabe sobran daukaguna behar dugun zerbaitekin aldatzeko aukera bikaina atzokoa. **06**

Oinkari dantza taldeak kotilioia antolatu du Olaederra kiroldegian

00:30ean emango diote hasiera; era berean, urtarrilaren 5rako 3gabe2, Margot eta Blakaren kontzertuak ere prestatu ditu Villabonako taldeak **02**

Gustura bukatu dute IX. Pilota Topaketa Amezketan

Amezketako, Alegiako, Altxoko eta Ikaztegiak 91 pilotarik hartu dute parte txapelketan; gazteen lehen pilotakadak izaten dira lehiaketaren batean **05**

Barriolak eta Olaizola I.ak emango diete hasiera bihar Binakako Txapelketari

Barriolak Xala izango du bikote, Olaizola I.ak Beloki eta Bengoetxea VI.ak Patxi Ruiz; Leitzan bizi diren bi pilotariek irekiko dute apirilaren 17an oraindik zehaztu gabe dagoen pilotalekuan amaituko den lehia **03**



Berezi
44-64
neurriak
Gabonetako
eskaintzak!

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda



Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965



Loatzo igo ostean ateratako argazkia. HITZA

Mendira joanez urte berriari hasiera ona emateko aukera

2011. urtea batzuk parranda eginez hasiko dute. Beste batzuen aukera berriz, mendira joatea izango da

Erredakzioa Mendia

Urteko azken eguna iritsi da. Familia edota lagun artean biltzeko eguna da. Baina askok jada, oporretara joateko hautua ere egiten dute. Eta beste batzuek, egun hauetan etxerako bidea egiten dute familia eta lagunekin egoteko.

Era batera edo bestera, 2010. urte agurtu eta 2011. urteari ongi etorria emango diogu. Gaurkoa, afaltzeko mahai inguruan bildu eta bapote jateko eguna izaten da. Hamabietako kanpai hotsekin batera hamabi mahats aleak jan eta urte berriari hasiera emateko ohitura dago. Jarraian, mahai inguruan hizketan, kartetan edo kantuan, edota oherako edo parrandarako bidea hartu ohi da.

Oherako bidea hartzen duten horien artean, askok, urte berria mendira joanez hasi ohi dute. Gu-

rean jada badira ohitura bilakatu direnak ere.

Txindoki, Ernio, Uzturre, Loatzo, Leitzalarre, Intxurre, Otsabio, Artubi, Uli, ... mendietan ez da jenderik faltako.

Urteroko ohiturak

Villabonako Aizkardi Mendi Elkartekoek, urteroko ohitura dute Loatzo mendira igotzearena. Horretarako 08:30ean, Olaederra kiroldegian elkartuko dira. Nahi duenak, ateak zabalik izango ditu, lagun artean mendira igotzeko. Jarraian, behin tontorrera igota, guztientzat salda beroa izango dute prest.

Lizartzan, hirugarren urtez jarraian Otsabiorako igoera egingo dute. Otsabio Kirol Elkartek deituta, 09:30ean elkartuko dira herriko plazan. Herriar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

Uzturrera igotzeko ere ohitura handia dago Tolosan. Bakarrik, lagunekin, familian, ... Uzturreko bidean, goizeko lehen ordutik ez da lagunik faltako. Urteko lehen egunean garbi geratzen da euskaldunok mendiarekiko dugun lotura eta zaletasuna.

→ Laburrak

'Como perros y gatos' eta 'Los ojos de Julia' Gurean

VILLABONA ▶ Bihar ez da eman-kizunik egongo baina, igandean 16:30ean *Como perros y gatos* filma ikusteko aukera izango da eta 19:30ean, *Los ojos de Julia* eskainiko dute. Astelehenean berriz, 21:30ean, *Los ojos de Julia* izango da.

Gaur Euskal Herriko Mus Txapelketa 15:00etan

AMEZKETA ▶ Urtero bezala, abian da Euskal Herriko Mus Txapelketa. Errekalde tabernan jokatu dute klifikazio saioa. Izena emateko aukera 14:30etik aurrera egin ahal izango da. Eta txapelketa 15:00etan hasiko da. Bertako finalistak Gipuzkoako saiorako sailkatuko dira.

Herri Batzarra Iriarte etxean urtarrilaren 4ean

ZIZURKIL ▶ Zizurkilgo ezker abertzaleak deituta, urtarrilaren 4ean Herri Batzarra egingo dute. Iriarte etxean izango da eta batzarrari hasiera 20:30ean emango diote. Bertan herriko inkestaren ondorioak aztertuko dituzte eta hauteskunde inguruan ere hitz egingo dute.

EHNEK bat egiten du Etxeraten mobilizazioekin

TOLOSA ▶ EHNE sindikatuak bat egiten du Etxeraten deituta gaur herri eta hirietan euskal presoan alde egingo diren elkarretaratze eta manifestazioekin. Eta urtarrilaren 8an Bilbon egingo den manifestazioarekin ere. EHNEK dei egiten dio gizarteari eta bere kideei mobilizazio hauetan parte hartzera.

Elkartasun Eguneko afarirako txartelak salgai

LEITZA ▶ Elkartasun Eguneko afaria urtarrilaren 5ean eskola-jantokian egingo dute. Txartelak Torrea tabernan daude salgai 25 euroren truke, azken eguna astelehena izango da.

Irudia o Villabona



OINKARIEN SASKIA

Urtero bezala Oinkari dantza taldeak abenduaren 22an zozketatu zuen bere gabonetako saskia. Aurtengo zenbaki irabazlea 9250 suertatu zen eta Metal Sai enpresak eraman du saskia. Oinkari dantza taldeko kideek, «zorionak eta eskerrak» eman nahi izan dizkie Oinkariaren aldeko zozketan parte hartu duten guztiei. HITZA

Kotilioia gaur Oinkari dantza taldearen eskutik

Olaederra kiroldegiko tabernan izango da. Kotilioiari 00:30ean emango zaio hasiera eta sarrera doan izango da

Erredakzioa Villabona

Oinkari dantza taldeak Olaederra kiroldegiko tabernan Kantina zabalduko du. Gaur, 15:00etatik aurrera zabalik izango da baina ekitaldi nagusia, urte berriari hasiera emateko 00:30ean hasiko den kotilioia izango da.

Sarrera doan izango da. Taldeko kideek, guztiak gonbidatu

nahi dituzte egingo duten kotilioian parte hartzera.

Bestetik, urtarrilaren 5ean asteazkenean, 23:00etan kontzertuak izango dira eta kasu honetan ere sarrera doan izango da. Margot, Blaka eta 3gabe2 taldeek joko dute.

Urtarrilaren 8an 21:00etan afari herrikoa egingo dute. Afariaren kostua 25 eurokoa da eta izena emateko 660 139 380 telefono zenbakira deitu beharko da. Kasu honetan, Oinkari dantza taldeak, laguntzaile izango du Irrintzi elkartea.

23:00etan 'Gure Txokoa oroituz' jaia egingo dute; aspaldiko musika giro ezin hobean.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA


■ **Etxebizitza.** Berrobin etxebizitza alokatzen da. 3. solairua eta erreformatua. Interesatuak deitu 656 41 02 80 zenbakira.

SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egotera oso onean. Harremanetarako deitu: 635 75 09 15.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Interesatuak deitu: 635 75 09 15.

■ **Etxebizitza.** Leitzan 100 m²-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. Interesatuak deitu telefono honetara: 687 40 52 33.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ Proiektu berriekin ere, zure herri edo azukoa albisteek **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza** egunkarian lekua izango dute. Albiste edo argazkiren bat guri bidaltzeko helbideak hauek dira: tolosaldea@hitza.info da edo leitzaldea@hitza.info. Bestalde, zure herriaren edota inguruko berri gehiago jakin nahi izanez gero, sartu internet bidez eta bisitatu zonaldeko banatu ditugun gure webgune berriak:

www.tolosaldea.hitza.info

 Gutunak

492 etxebizitza gehiago, hiri antolamendurako plan orokorrari esker

492 etxebizitza gehiago eraiki ahal izango dituzte ibarran udalak jakinarazi duenez. Horren arabera, 492 aukera gutxiago izango dira herrian dauden 200dik gora etxe hutsei irteera bat emateko. 492 aukera gutxiago izango dira alokairu sozialeko etxebizitza sail bat egiteko. 492 aukera gutxiago izango dira aparkamendu eta garraio arazoari irteera duin bat emateko.

Hala ere, beste puntu batetan gehiago sakondu nahiko genuke. Ez dakigu, ezjakintasunagatik den edo beraien proiektu politikoaren oinarriagatik den, baina deigarria iruditzen zaigu etxebizitzaz bakarrik hitz egiten dutela. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, askok aurkakoa pentsatu arren, ez da etxebizitzetara soilik mugatzen. Izenak berak dioen bezala, hiri edo herri osoaren antolamendua du ardatz eta oinarri, hau da: zerbitzuak, gune berdeak, parkeak, lur erreserbak, aparkamenduak...

Nork pentsatzen du 492 etxebizitza gehiagorekin Ikastola, Haur Eskola, kultur etxea, kiroldegia, Osasun Zentroa... ez direla txiki geratuko?

Non paseatu eta jolastu behar dute ibarrako haurrek eta biztanleek, dena etxez betetzen

batzuen inguruan eta parke berriak gabe?

Lur sail guztiak kalifikatuta eta lur erreserbarik egin gabe, zein aukera gelditzen zaio herriari etorkizunean sortu daitezkeen beharrei erantzuteko?

Guzti honen aurrean zein irtenbide geratuko zaigu ibartarrei? Ikastolara Tolosara? Kiroldegira Tolosara? Kultur Etxera Tolosara? Haur Eskolara Tolosara? Erosketak egitera Tolosara? Hiri antolamendurako Plan honekin pixkanaka Ibarra logela handi bat bilakatu nahi dute. Bertako biztanleok lotara bakarrik etorriko gara herrira eta gure beharrak (aisia, lana, hezkuntza, erosketak, kirola...) Tolosan aseko genituzke.

Maniobra maltzurra inondik inora! Zergak ibarran utziko ditugu, baina bizitza Tolosan egitera behartuak aurkituko garenez, bertan kexatuko gara parkeen egoeraz, aparkamendu eta trafikoaren arazoaz, eta abar luze bat. Zinegotziek aldez, hainbat aitzakia tarteko, zergak eta soldatak igoko dituzte, baina antolatu beharreko herriak ez dute izango. Beraz, txin-txin, poltsikoetara sartzen zaien soldatako txanponak kontatzea beste lanik ez dute izango.

■ **Anot Karrera.** Ibarako hautetsi independentista.



Irdian, lurzoru urbanizagarrietako batzuk. E. EZEIZA



Barriolak Xalarekin jokatuko du Binakako Txapelketa. Jaunarena Bigarren Mailakoan ariko da. E.E.

Barriola eta Olaizola I.aren arteko lehiak jarriko du abian Binakako Txapelketa

Atzelariak Xalarekin osatuko du bikotea eta aurrelariak Ruben Belokirekin; partida bihar jokatuko da

Asier Imaz Pilota

Aurkeztu bezain pronto iritsi zaizkio lehen kritikak Eskuz Binakako Txapelketari. «Luzeegia» eta «bikoteen artean ez dago orekarik» bezalako iritziek, 3 hilabete t'erdia eta Xala-Barriola dituzte sorburu.

Kontuak kontu, txapelketa bihar hasiko da Eibarko Astelena pilotalekuan. Leitzan bizi diren bi pilotari egongo dira bertan aurkari gisa, hau da, Asier Olaizola eta Abel Barriola. Finala apirilaren 17an jokatuko da oraindik zehazteko dagoen pilotalekuan.

Gure pilotariak

Atzo eguerdian aurkeztu zuten Binakako Txapelketa Gasteizen. Bertan jakin genituen gure pilo-

tarien bikotekideak nortzuk izango ziren. Lehen aipatu bezala, Barriolak Xalarekin jokatuko du txapelketa; Olaizola I.ak Belokirekin eta Bengoetxea VI.ak Patxi Ruizekin. Azken bikote honek, bere lehen partida urtarrilaren 2an, igandean, jokatuko du Eibarren.

Txapelketaren sistemari dagokionez, lehenik, 16 bikoteren artean bi itzuli izango dituen liga jokatuko dute eta ondoren, lau bikote onenek, ligaxka bat jokatuko dute.

Binakako Txapelketa

BIKOTEA

■ Aspekto pilotariak.

- Mtz. Irujo-Merino II.a
- Titin III.a-Paskual
- Gonzalez-Laskuain
- Xala-Barriola

■ Asegarceko pilotariak.

- Bengoetxea VI.a-Patxi Ruiz
- Berasaluze VIII.a-Apriz
- Olaizola I.a-Beloki
- Olaizola II.a-Begino

tuko dute. Finala apirilean jokatuko da eta txapela irabazten duen bikoteak 14 partidako ibilbidea emango du soinean.

Bigarren Mailako txapelketa

Eskualdeko hiru pilotari ari dira lehiari zilarrezko mailan. Lehen partida atzo jokatu zen eta bertan egon zen Mikel Olazabal. Aresorrak Galartzarekin osatzen du bikotea Bigarren Mailako txapelketan.

Bihar, Olaetxea lizartzarrek jokatuko du Albisuren bikotea osatuz. Aurkari bezala Apeztexea eta Cecilio izango dituzte.

Urtarrilaren 2an, etzi, Jon Jaunarenaren txanda izango da. Aste honetan jokatuko du leitzarrak profesionalekin bere lehen partida. Orain bere lehen txapelketa jokatuko du Asperekin. Jaunarenak Larrinaga izango du atzean eta aurkari bezala, Rico IV.a eta Argote.

Bigarren Mailako Binakako Txapelketaren finala apirilaren 10ean jokatuko da.

● almaz@berria.info

**Eguberri
hauetan
oparitu
HITZako
harpidetza!**



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** **hitza**
bertako egunkaria
egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa

Napoleonen aurpegiak aztergai

Napoleonen alderdi anitzak jasotzen dituen erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, urtarillaren 8ra arte

Hugo Terradillos Tolosa

Napoleon Bonaparteren irudia aztertzen du Aranburu jauregian ikusgai dagoen *Basatiaren beste europia*. *Napoleonen garaitxo propaganda eta kontrapropaganda* erakusketak. Garai jakin bateko gertaerak aztertzen ari diren historialariek egiak aurkitzeko zailtasunak izan ohi dituzte. Napoleon bezalako pertsonaiekin gertatu ohi zaie hori. Pisu handiko pertsonaia izaki, irizti eta irudi kontrajarrigarri daukade beraren inguruan.

Horie da, baina zuzen ere, erakusketa honen helburua, Napoleonen alderdi anitzak jasotzea, berraz buruzko ikuskerak heldu eta mitoa eragin zuten bihurtzeko erakutsi.


Bere garaien kokatuz

Bada, Napoleon Bonaparte, bere garaiak testuingurua eta erakusketa bera egokiago ezagutu eta ulertzeko, bisita antzerkia onartolatu dute Turismo sailetik. Erakusketaren azken egunean, hau da, urtarillaren 8an izango da, 17:30ean. Aranburu jauregian hainako da ibilbidea, eta Napoleonen dramaren esenatoki garatuak zuzenbideko iturriaren San Ponzisako pasealekura inoango dira. Carlos Rileva historialariak deitzen auzara egitera gubidatuko ditu bisita berezi honetan parte hartuko dutenak. Izan ere, azalpenak emateaz gain, garai hura irudituko du, ohiko jantziak soilen dituela.

Bisita Aranburu jauregian bekatuko da, Napoleoni buruzko erakusketarekin. Ekitza hau «erakusketak dinamizatzeko eta Tolosaren historian nahiko ezaguna den pasarte hau ezagutzeko» antolatuta dute. Doan izango da, eta nahi duen herritar orok hartu ahal du parte.



Epinal-eko irudiek Napoleonen guduetan gertatuak azaltzen dituzte, irudi zinezagariekin eta testu tokiak. Oso herrikoia den publikoari zuzendutako zine. Piramideetako bataila-ren grabatu hau da horren adibide. ||



Napoleonen irudiek irakazte, giltzatasoa, imana edota libreta ikus ditzakegu erakusketan. Baita berak erabilitako lurrinaren falsimilea ere. Eskuinean, Bayoneta aldiakariaren azken alea. ||



Eskierrean, Bonaparteri buruzko liburuak. Eskuinean, bere aldeko propagandaren adibide den desertzioagatik salatutakoien epala jasotzen duen alderdia. Aldamenen, haren irudi heroiak erakusten duten elementuak. ||

Leire Olaberria Palman izango da datorren astean, Munduko Kopa prestatzen

Ereduakzioa Iaztegieta

Juan Martinez Olive Espainiako pista txirrindularitza hautatzaileak Leire Olaberria Iaztegiatarra deitu du, beste hainbat txirrindulariaren batera, datorren astean Palman (Mallorca, Herrialde Katalanak) egingo duten konzentrazioarako. Hain zuzen ere, urtarillaren 7tik 15era egongo dira bertan. Pekinen jokatzeko den Munduko Kopako hirugarren kanporaketarako prestatzea izango dute helburu.

Pekingo hirugarren probaren ostean, laugarren eta azkena Manchesteren izango dute txirrindulariek. Horren ondoren, Munduko Txapelketa etorriko da. Azken bi proba hauek izaten dituzten emaitzen arabera erabakiko dute mundukoan nor lehaitzeko den.

Urtarrilaren 5a izango da Kultur Bonua eskuratzeko azken eguna

Ereduakzioa Tolosa

Eusko Jaurlaritzak ateratuko Kultur Bonuarekin martxo bihurtzeko ondorengo ikuskinen eta zine bonuak eros daitezke Leidor aretoan: urtarillaren 17ra bitarteko zine-saloietan zine bonuak (15 euro), *Baginaren bakarrizketak* antzezlanak (10 euro); *Mintxo* Dantza konpainiaren emanakia (10 euro); *La Guinda* filmen taldearen emanakia (10 euro); *No me hagas daño* antzezlanak (10 euro); *Debe ven* komedia (10 euro); eta Pirritx eta Porrot (6 euro). Serbikutan eros daitezke, eta azken eguna urtarillaren 5a izango da.

Gaztetxoenen pilotakadak

Amezketako Larrunarri frontoian jokatu zituzten atzo Gabonetako IX. Pilota Topaketako finalak

Ereduakzioa Amezketako

Gabonetako IX. Pilota Topaketako amaiera eman zieten atzo Amezketako Larrunarri frontoian. Herri horretako zein Alegia, Alto eta Iaztegiatoko 91 pilotariak parte hartu dute bost mailatan eta finalak atzo jokatu zituzten. Topaketetan parte hartzen dutenen askeorantz jelen pilotakadak izaten dira lehiaketa batean. Flusio joeten dira txapelketa, bates ere txikiak. Pilota bigunekin egiten dira partidak eta horrek parte-hartze zabala ahalbidetzen du. Jende ugari izan zen finalak ikusten eta partidak oso borrokatsuak izan ziren. Indarre baino, pilota txokoan utzitaz herren zituzten tonto gehiago.

Atzoko finalatan ondorengoak izan ziren emaitzak: prebenjaminetan, Arkaitz Amundarain eta Jon Mikel Artoia 12; Amets Urdun eta Jokin Olano 8; benjaminetan Iker Zubeldia eta Unai Begilaga 12; Altor Galarza eta Almar Urdal 10; aletan Jonnos Olano eta Oier Zubeldia 14; Xabier Perurena eta Julen Olarbidia 12; infantrialtan Uxo Mena eta Beñat Balerdi 16; Aratz Irastabarena eta Asier Alustiza 13; eta kadetekin Eñaut Larrea eta Jon Irizar 14; Artzi Garmendia eta Julen Otamendi 8.



Golan prebenjaminak, erdian benjaminak eta azpian alebina. || GAZTE

Golan infantrialak, erdian kadetek eta azpian ikusleak. || GAZTE

Plaza Ekabegiri
www.plazatolosa.com
tel.: 945 02 19 20
647 023 694

pintura eta paperezatzeak
P.K. 20000 hurrea
tel.: 647 023 694

arreta pertsonalizatua
• Revlon,
• Olay • L'oreal
• Max Factor...
Kale Nagusia, 17
TOLOSA
Tel.: 943 67 11 28
www.aldiberri.com

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperen, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udakeneraino. **Apustu hau surrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berriketan.info



Lagundu gaitzazu ekonomikoki

Ekarpena egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

- Transferentzia Euskadiko Kutxan:
3035 0060 48 0600113162
(izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez:
zuzaraberria.info webgunean

berria
taldea

Bakoitzak soberan duena trukean emanaz

Gazte Asanbladak antolatuta, truke azoka egin zuten atzo Karrapen; astelehenean, II. Futbito Maratoia

Erredakzioa Leitza

Kamiseta bat utzi eta liburu bat hartu trukean. Dirurik erabili gabe, bakoitzak soberan zuena emanaz truke azoka egin zuten atzo Leitza. Gazte Asanbladak antolatuta, udaletxe azpiko karrapen egun guztian izan zen gauzak trukatzeko aukera.

10:00etan zabaldu zituen atea, eta jendea pixkanaka gauzak utziaz joan zen. Herritarrek etxean soberan zutena edo trukearako egokia izan zitekeena eramaten zuten. Ondoren, gustuko zerbait ikusiz gero, hura hartzen zuten. Zenbaitek, borondatez, utzi beste-rik ez zituzten egin gauzak, etxera eramateko beste ezer hartu gabe.

Iazko Eguberrietan egin zuten estreinakoz azoka Atekabeltz

Gaztetxean, eta ongi atera zenez aurtenerrepikatu egin dute. Hala ere, Atekabeltz-eko eraikina obretan dagoenez, kokalekuz aldatu zuten. Galtzak, jertseak, kamisetak eta liburuak topa zitezkeen azokan. Gainera, soberan geratu zen materiala behartsuei eman zieten. Egunari amaiera, Karrapen bertan eskainitako talo ikastaroarekin eman zioten.

Futbito maratoiarekin ekitaldiei amaiera

Eguberrietarako hainbat ekimen antolatu ditu Leitzako Gazte Asanbladak. Haueri bukaera II. Futbito Maratoiarekin emango diote. Urtarrilaren 3an kiroldegian jokatu da hau. 10:00etan hasiko da txapelketa eta iluntzera arte luzatuko dela aurreikusten dute antolatzaileek.

Taldeak aurkezteko epea bihar amaituko da. Hala, interesa dutenek Torreon, Peritzan edo Gaztetxean eman dezakete izena. Bost eta zortzi kide arteko talde mistoak izango dira parte-hartzaileak. Partida motzen ligaxka izango da hau.



Jende gehienak arropa eraman zuen trukatzeko; egun guztian zehar Karrapen egon zen azoka jarrita. E. EZEIZA

Irudia » **Leitza**



ATEKABELTZ OBRETAN DAGO

Atekabeltz eraikinak itxura hau du azken hilabeteetan. Urrian hasi ziren birgaitze lanetan, eta horretan dihardute. Besteak beste, fatxada, leihoak eta teilatua ari dira konpontzen. Aurreikuspenen arabera, urtarrila bukaerarako prest egongo da. Baina, Gaztetxea bera itxia egon arren, Gazte Asanbladak lanean jarraitzen du. Hoteetarako gazteen etxeak aurpegi berria izatea espero da. E. EZEIZA

Gaur abiatuko da Xabi Fernandez munduari buelta emateko

Barcelona World Race proban hasiko da; Martinezekin 25.000 milia zeharkatu beharko ditu eskalarik gabe

Erredakzioa Ibarra

Gaur itsasoratuko dira Xabi Fernandez eta Iker Martinez. Izan ere, 13:00etan abiatuko dira Bartzelonatik Barcelona World Race txapelketan parte hartuko duten hamalau ontziak. Bikoteka, munduari buelta eman beharko diote, eta eskalarik egin gabe.

Norberaren mugak ezagutzeko bide ematen duen proba da bigarren aldiz jokatu den hau. Parte-hartzaileetako asko ziurrenik ez baitira itzuliko berriro Bartzelonara. Fernandez eta Martinez dira txapelketa irabazteko faborito nagusiak.

Bikoteek Buena Esperanza, Leuwin, eta Hornoseko lurmuturra zeharkatu beharko dituzte. Baita Cookeko itsasarte ere. Hau dena, atsedenaldirik eta lu-



Mapfre izena du Martinez eta Fernandez taldeak. HITZA

rrik hartu gabe. Horretarako aitzakia bakarra, matxura handi bat jasatea izango litzateke. Eta gainera, betiere, beraiek konpondu ezinezkoa baldin bada. Gainera, kasu hauetan, tripulatzaileak zigortuak izango dira.

Parte hartzen duten ontzi guztiak IMOCA Open 60 motakoak dira. Hau da, kasko bakarrekoak eta 18 metro inguruko luzera dutenak. 5,5 metroko zabalera eta txapelketarako nahiz hiru hilabetez bizitzeko toki oso gutxi duena. Aurreikuspenen arabera, mar txoaren amaieran itzuliko dira nabigatzaileak Bartzelonako por-

tura. Tarte horretan 25.000 itsas milia (46.300 kilometro) zeharkatu dituzte.

Hastear dena, bigarrena

Aipatu bezala hamalau ontzi ariko dira lehian, eta horien artean, faborito da iazko irabazlea, Jean Pierre Dick. Honek, ontzia eta kidea estreinatzen ditu: Loïck Peyron, munduko nabigatzaile onenetako bat.

Ezusteak, istripuak, hezetasuna, hotza eta lo falta dira proba honek erakusten dituen zailtasunik handienek. Honekin batera, bakardadea eta elkarbizitza.

1.800 euro banatuko dituzte Kaskabeltzakoe

Merkatari elkarteak kanpaina bat jarri dute martxan Eguberri begira; erosketa bonoak zozketatuko dituzte

Erredakzioa Leitza

Eguberriak erosketak eta opariak egiteko garaia izaten da. Hori dela eta, hau kontuan hartuta, Kaskabeltza, Leitzako merkatarien elkarteak, kanpaina berri

bat jarri dute abian. Honen baitan, 1.800 euro banatuko dituzte beraien bezeroen artean. Horretarako zozketa bat antolatu dute elkarteak kide diren 38 bazkideek. Hala, urtarrilaren 5ean emango dituzte ezagutzera irabazleak Karrape irratia bitartez. Hiru sari banatuko dituzte, eta hauek prezio ezberdinak erosteko bonoak izango dira. Balio handienak 500 eurotakoak izango da. Honez gain, 400eko beste bat, 300eko eta sei 100 eurotako egongo dira.

→ Laburrak

Orona torneoan San Migel izango du aurkari Zeberio

ELDUAIN » Urtari agur, kantxan esango dio Patxi Zeberio. Izan ere, gaur erremonte jaialdia izango da Galarretan. Orona torneooko partida jokatu du. Elduaingoak San Migel izango du aurkari.

14-22 galdu du Jaunarenak bere debut egunean

LEITZA » Herenegun Beotibar pilotalekuan egin zuen debuta Jon Jaunarena gazteak. Abel Barriola izan zuen bikotekide, eta Aritz Lasa-Laskorain aurkari. Ongi hasi ziren leitzarrak eta parekatua izan zen lehia, baina bukaeran aurkariak aurre hartu zieten eta ezin izan zuten garai-pena etxeratu Leitzako bi gazteek.

Urtezaharreko krosak gaurko protagonistak

Urtea agurtu eta gero ere, datozen egunetan, izango da zeregina bai Tolosaldean eta baita Leitzaldean ere

Erredakzioa

Urteko azken eguna da gaurkoa eta bakoitzak bere modura igaroko badu ere, askok era berean amaituko dute urtea: korrika. Izan ere, gaurko eguneko ekitaldi nagusiak krosak izango dira. Geror eta parte-hartze handiagoa dute Urtezaharreko edo San Sil-

bestreko krosak. Leitzan eta Areson ez dute egiten, baina Tolosaldean Tolosan ez ezik, Alegian, Berastegin, Lizartzan eta Villabona-Zizurkil en egiten dituzte. Guztietan zaharrena, Villabona-Zizurkilgoa da. Aurtengoa 27. edizioa izango da eta berrikuntza bat dakar, itzuli gutxiago egin behar dituzte eta korrikalariek. Villabona-Zizurkilgoa lehena bada, krosa antolatzen azkena Alegia izan da, gaurko lehen edizioa izango baita. Berastegin eta Lizartzan urteak daramatzate lasterketa antolatzen eta jada herrietan errotuta daude.

Bukatzeo korrikalari gehien

biltzen dituen krosa Tolosakoa da. Elkartasun Krosa du izena parte-hartzaileek ordaindu beharreko dirua Kolonbiako Campo Alegre bidaltzen baitute. Krosez gain, hala ere, izango dira ekitaldiak datozen egunetan, ondoko taulan ikusi daitekeen bezala.

Atzokoan Ibarren, Iruran, Anoetan eta Tolosan txikiak izan ziren protagonistak. Ibarren antzezlanak izan zuten, Iruran batzuk Bilboko Haur Parkera joan ziren eta besteek xake partidak izan zituzten plazan. Anoetan ere xake partidak jokatu zituzten. Tolosan, Topagunean, txokolatada izan zuten.

↓ Datozen egunetako ekitaldiak

ADUNA

■ **Urtarrilak 4.** Xurdirin Gabonetako kontzertua 18:00etan Elordi plazako lokalean.

ANOETA

■ **Urtarrilak 2tik 5era.** Egun osoan zehar, ordu desberdinetan banatuta, xake partidak izango dira Hozpel kaleko udal lokalean.

ALEGIA

■ **Abenduak 31, gaur.** San Silbestre herri krosa 16:00etan. Bi lasterketa izango dira eta txikiak irtengo dira lehenengo.
■ **Urtarrilak 1.** 11:15ean Txintxarri abesbatza kantuan ariko da meza nagusian. 12:15ean udal hautetsiek mandarinak eta intxaurrak banatuko dituzte plazan.

BERASTEGI

■ **Abenduak 31, gaur.** VII. Urtezaharreko Krosa 18:00etatik aurrera.

IBARRA

■ **Oharra.** Urtarrilaren 3tik 5era, goizez bakarrik egongo dira zabalik kultur etxea eta liburutegia, honako ordutegiarekin: 09:30etik 14:00etara.

IRURA

■ **Abenduak 31, gaur.** 10:00etan, Loatzo mendira egun pasa, plazatik abiatuta.
■ **Oharra.** Urtarrilaren 3 eta 4an,

11:00etatik 13:00etara egongo dira irekita Ludoteka eta Liburutegia.

LEITZA

■ **Urtarrilak 3.** 10:30ean Ateka-beltzen II. Futbito Maratoia.

LIZARTZA

■ **Abenduak 31, gaur.** Urtezaharreko krosa 17:00etatik aurrera.
■ **Urtarrilak 1.** 09:30ean irtenda Otsabio mendira iteera.

TOLOSA

■ **Abenduak 31, gaur.** Urtezaharreko Elkartasun Krosa 15:30etik aurrera.
■ **Urtarrilak 3 eta 4.** Tolosa&Co-k txotxongiloak egiteko ikastaroa eta ipuin kontalari saioak egingo ditu 17:00etatik 19:30era Topic-en. Taldean eguneko 40 gaztetxoentzat lekua dago eta hauek hautatzeko Topic-era iritsi direneko hurrenkera hartuko dute kontutan.
■ **Urtarrilaren 9 bitarte.** Laskorain ikastolak urtero antolatzen duen Merkatu Txikia. Kultur etxean dago honako ordutegiarekin: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

VILLABONA-ZIZURKIL

■ **Abenduak 31, gaur.** Urtezaharreko krosa 16:00etatik aurrera.
■ **Urtarrilak 1.** 08:30ean Oladerra kiroldegitik irtenda Loatzo mendia igotzeko iteera.



Lehen irudian Anoetako xake partidak eta bestean, Tolosako Topaguneko txokolatada. E. MAIZ-R. CALVO

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzun diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazazago izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	13º
HOTZENA	7º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Beste urte berri bat duzu hasten, zorionak Urki!

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Agenda

AZOKA

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkatu Txikia, kultur etxean.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Puri Etxaburuaren *Bizia* erakusketa, *reborn* panpinekin osatua, Aranburu jauregian.
■ **Tolosa.** Angel Cuerdoren *Mundu bete kolore* erakusketa, Aranburu jauregian. Angel Cuerdok azken 10 urteetako bidaletan jasotako argazkien bilduma. Argazkiak salgai daude, eta jasotako dirua Sahararen alde izango da.
■ **Tolosa.** Napoleoni buruzko erakusketa Aranburu ikusgai.

JARDUERAK

■ **Tolosa.** Tolosa&Co elkarteak txotxongiloak egiteko ikastaroa eta ipuin kontalari saioak izango dira urtarilaren 3an eta 4an, 17:00etatik 19:30era Topic-en. 40 gaztetxorentzat dago lekua.

KIROLA

■ **Leitza.** Urtarrilaren 3an, 10:30etik aurrera Atekabaltz

Gaztetxearen II. Futbito Maratoia.

MENDIA

■ **Irua.** Gaur, 10:00etan, Loatz mendira egun pasa, plazatik abiatuta.
■ **Lizartza.** Bihar, herriko plazan elkartuko dira 09:30ean, Otsabio elkarteak deituta, eta Otsabio mendia igoko dute.
■ **Villabona.** Bihar, 08:30ean elkartuko dira Olaederra kiroldegian, Loatz mendia igotzeko.

SAN SILBESTRE KROSAK

■ **Alegia.** Gaur, 16:00etan: Bi lasterketa izango dira. 6-11 urte bitartekoak aterako dira lehenengo, eta ondoren 12 urtetik gorakoak irtingo dira.
■ **Berastegi.** Urepel elkarteak antolatzen duen VII. Urtezaharreko Krosa, gaur, 18:00etan 12 urte bitartekoak aterako dira. 18:30ean, 12 urtetik gorako txanda izango da.
■ **Lizartza.** Otsabio kirol elkarteak antolatzen duen Urtezaharreko krosa. 17:00etan 10 urte artekoak aterako dira eta ondoren, 10 urtetik gorako txanda izango da.

■ **Tolosa.** Urtezaharreko Elkartasun Krosa, gaur. Samaniego ikastetxeak eta Orixe institutuak antolatzen dute urtero. 15:30ean benjaminak aterako dira, 16:00etan alebinak eta 16:30ean infantilak eta helduak.
■ **Villabona.** Urtezaharreko krosa, gaur. Villabonako Zurbeltz elkarteak eta Zizurkilgo Urkamendi elkarteak antolatutako lasterketa da. 16:00etan benjaminak aterako dira, 16:10ean alebinak, 16:28ean infantilak eta kadeteak eta azken txandean, 16:30ean, jubenilak, proba nagusia eta beterranoak.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, bihar: 17:00etan, *Midas erregearen altxorra* (euskaraz) haur zinea; 19:30ean, *Heroes*; 22:30ean *Caza a la espia*. Etzi, igandean: 17:00etan, *Harry Potter*; 19:30ean eta 22:00etan *Caza a la espia*; Astelehenean (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Heroes* filma.
■ **Villabona.** Gurea aretoan, etzi, igandea: 16:30ean, *Como perros y gatos*; 19:30ean, *Los ojos de Julia*. Astelehenean, 21:30ean, *Los ojos de Julia*.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefono zenbakia: 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo, 2. Telefono zenbakia: 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefono zenbakia: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kle Nagusia, 5. 112.
■ **Iruizun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

MUGAR
MODA INTIMA

Nafarroa etorb. 16 • Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • Tel.: 943 65 40 37
TOLOSA

Egin zure erosketak Mugarren

Opari praktikoak Mugarren



saridunak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pare du

LAGUN ARO GBC
Meridiano Alicante
saskibaloia partida

• **Lore Iturrioz (Tolosa)**
Urtarrilak 2 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak



sarrerak eskuratzeko gaur goizean 12:00ak baino lehen Tolosako Hitzako egoitzetik pasa